

URUMEAKO Kronika

2016/09/20

**HERNANI** Irailak 20

Erakusketa inauguratu zuten, eta gaur, Ergobitik bisita gidatua egingo dute, Arzallusekin (eskuinean).

[albisteak](#)//SAGARDO IBAIAK BIZITZA ITURRI

Sagarra eta sagardogintza, festarako aitzakia

Protagonismo berezia hartu du urrezko zukuak hil honetan, Astigarragan. Atzo, 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa inauguratu zen; gaur, Urumean barrena bisita egingo da, eta datorren astean, Sagar Uzta jaia izango da.

HERNANI

2016/09/17 00:00 Larunbata

Lourdes Odriozola, Sagardoetxea Museoko historialariak gidatutako bisita batekin inauguratu zen atzo, Sagardo ibaiak, bizitza iturri erakusketa. Hilaren 25era arte ikusi ahal izango da, Urumea eta Oria ibaiek sagardogintzarekin izan duten lotura ezagutzeko eta hainbat sekretu eta bitxikeria

ezagutzeko.

Horrekin lotuta, eta sagarrari protagonismoa emanez, beste hainbat ekintza ere antolatu dira hil honetan. Gaur bertan, bisita berezia egingo da, Urumea ibaian gora aurrena, eta Ergobian, gero.

Paddle surfean Urumean gora, eta Ergobian bisita

Hain zuzen, Sagardoetxean jarritako erakusketari lotuta, gaur beste bisita berezi bat egingo da, Urumean barrena, Ergobiaraino: eguerdiko 15:30etan abiatuta, paddle surf edo zutikako arrauna eginez, Martutenetik Ergobiarako zubiraino joan ahal izango da, eta ondoren, 18:30etan, Andoni Arzallus auzotarrak bisita gidatua egingo du Ergobian barrena, XX. mendeko sagardotegien berri emanez. Pintxoak eta **sagardoa** dastatzeko aukera ere izango dira, musikaz gozatu bitartean. Parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa: www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean edo 943 55 05 75 telefonoan.

Sagar Uzta jaia, ate-joka

Bestalde, Sagar Uzta jaia egingo da aurten ere, irailaren 22tik 25era, eta hainbat ekintzatan parte hartzeko izenematea ireki dute, dagoeneko, **Sagardoa**ren Lurraldean; info@sagardoaarenlurraldea.eus edo 943 55 05 75.

Besteak beste, izena eman behar da hilaren 24an Santiomendin barrena egingo den familia giroko mendi-bueltan parte hartzeko, eta Sagar Uzta egunean, hilaren 25ean antolatu diren hiru ekintzetarako: argazki rally digitala, 700 kizki-lagun biltzeko erronka eta tailer gastronomikoak.

- Irailak 22, 19:00-21:00, pintxo-potea herriko tabernetan, sagarraren eratorriekin egindako pintxoekin.

- Irailak 24, 09:30-13:00, Sagar Motak Ezagutuz, familian egiteko mendi-buelta, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar. Josu Osak gidatuta, Santiomendiko sagastietan dauden sagar barietate ezberdinak ezagutu eta dastatzeko aukera izango da*.

- Irailak 24, 10:00-13:00, III. Sagardobide Erronka errelebo proba. Aurten, lau taldek hartuko dute parte proba honetan: Alorreneak, Gurutzetak, Ipintzak, Kaxkarrek, Lizeagak, Petritegik, Rezolak, Txopinondok, Zapiainek eta Zelaiak. Ta bakoitzea bina neska-mutil ariko dira: aurreneko itzulian, mutilak bizikletan; bigarrenean, neskak korrika; hirugarrenean, neskak bizikletan; eta laugarrenean, mutilak korrika.

- Irailak 25, Sagarraren Jaia Foru Plazan:

09:30, Musika Eskolako txistu ikasleen eta Txirriskla Txistulari Taldearen diana.

10:30-12:00, IX. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala izenematea, plazan*.

11:00-14:00, Museo Enogastronomikoen Sarearen tailer gastronomikoak*.

11:00-13:30, haurrentzako tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00, Sagarraren azoka: sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo dastaketa; saski, txertaketa eta abarren erakustaldia; herriko baseritarren produktuen salmenta; tirikitilariak eta abeslariak herrian zehar.

11:00, Urteko uztako aurreneko muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30, Sagar dantza eta kirikoketa.


13:00, Txalaparta eta muztio dastaketa.

13:00, Kizki Eguna. 700 kizki-lagun baietz!*

14:30, Herri bazkaria frontoian.

17:30, Herrien arteko sagargintza desafioa.

*Izenemateak zabalik, 943 55 05 75 edo info@sagardoaarenlurraldea.eus: Sagar Motak Ezagutuz ibilbiderako Argazki Rallyrako, Kizki Eguneko erronkarako eta tailer gastronomikoetarako.




Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzaille](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)





GEHIGARRI BEREZIA



HERNANI

Irailak 20

HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA



Puri-Purian

Egun osoko jardunaldia, ... (1)

'Euskal balezaleen triskantza' ... (3)

Begiratu eta pentsatu ... (1)

Animatu Barrenetxea eta ... (3)

Bertso berriak, isiltasunari ... (2)

Biterin ikastaroren bat ... (1)

«Gutxienekoa iruditzen zaigu, ... (1)

Hernaniko hondakin bilketa ... (3)

31 ikastaro aukeran, ... (1)

Arre arre mandako, ... (2)

Gida komertziala

Q Komertzio bat bilatu

Bilatu



Mahuka

Denboraldi berria jada Mahukan

Iragarki merkeak

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Telefonoa: 616886660

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

Gaur



20°

15°

Bihar



22°

14°

Etzi



21°

14°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Euskal Jaiak 2016



Euskal Jaiak 2016



Gurdi Bidea



Gabon, Txirrita




Zikuñagako jaiak - Iga...



Erremontea - Banakako ...


Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTAILEAK



Legezko oharra